

EMAKUMEEN* ETA GIZONEN* EASO POLITEKNIKOKO BERDINTASUNERAKO II. PLANA 2025-2029

2025ko IRAILA



Easo Politeknikoan, justizia sozialarekin konprometitutako ikastetxea garen aldetik, berdintasuna funtsezko balioztat hartzen dugu gure eguneroko lanean. Plan honek, Emakunderen jarraibideak betez, Easo Politeknikoko Emakumeen eta Gizonen* Berdintasunerako II. Plana izenekoak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra bermatzea du helburu, baina haratago ere badoa.*

Gure konpromisoa identitate guztiak zaintzea, errespetatzea eta ikusaraztea da. Plan hau tresna inklusiboa eta sentikorra izatea nahi dugu, gure komunitate osoaren beharrak bilduko dituen, genero-binarismoaren barruan identifikatzen ez diren pertsonak barne.

Ikuspegi horrekin, pertsona bakoitza aitortua, baloratua eta errespetatua sentituko den hezkuntza-ingurune bat eraikitzeko borondatea berresten dugu.

1. AURKEZPENA / KOKAPENA	4
2. ARAU-ESPARRUA	5
3. PLANA EGITEKO PROZESUA	8
4. PLANEKO PRINTZPIO GIDARIAK	9
5. BERDINTASUNAREN PLANAREN EGITURA	10
6. BERDINTASUNAREN PLANA KUDEATZEKO SISTEMA	13
7. GARAPENA: Ardatzak, programak eta neurriak	18
1. GOBERNU ONA	19
2. AHALDUNTZE INDIBIDUALA ETA KOLEKTIBOA	21
3. GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA	22
4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	23
8. KRONOGRAMA	24
9. PLANAREN EBALUAZIOA	25

1. AURKEZPENA / KOKAPENA

Easo Politeknikoak bere konpromisoa berretsi du genero berdintasunarekin, hori bere plan estrategikoaren funtsezko ardatz eta bere hezkuntza-misioa gidatzen duten balio nagusietako bat izanik. Konpromiso hau **Berdintasun Planaren** ezarpenean islatzen da, **EMAKUNDE**ren jarraibideen arabera diseinatua eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako printzipioekin bat datorrena. Plan hau **Eskola Bizikidetza Planean** txertatzen da, errespetuan, aniztasunean eta ekitatean oinarritutako hezkuntza sustatuz.

Berdintasun Plana **hezkidetzako zortzi zutabeetan** oinarritzen da, eta gure hezkuntza-komunitatea inklusiboa eta diskriminaziorik gabea bihurtzea du helburu. Zutabe horiek honako hauek dira:

1. **Sexismoaren aurkako pentsamendu kritikoa:** genero-ikuspegitik hausnarketa eta analisia sustatzen dugu, ikaskuntza-arlo guztietan estereotipoak eta aurreiritzi sexistak zalantzan jarri.
2. **Hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista:** aniztasuna islatzen duen eta pertsona guztien ekarpenak ikusarazten dituen komunikazioa erabiltzen dugu, generoaren aurreiritziak gaindituz.
3. **Emakumeen jakintza eta haien ekarpen historiko eta soziala integratzea:** emakumeek historian eta gizartean izan duten papera aitortzen eta zabaltzen dugu, ikuspegi horiek eduki kurrikularretan txertatuz.
4. **Gatazken eraldaketa baketsua:** bizikidetza ekitatean eta errespetuan oinarritzen dugu, indarkeria prebenitzeko eta gatazkak modu eraikitzailean kudeatzeko tresnak eskainiz.

5. **Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa:** erantzunkidetasuna sustatzen dugu etxeko eta laneko arloetan, emakumeen eta gizonen parte-hartze ekonomiko eta soziala benetako berdintasunean oinarrituta.
6. **Espazio eta jardueren erabilera bidezkoa:** ikastetxeko espazioetan eta jarduera osagarrietan berdintasuna bermatzen dugu, bazterkeriak saihestuz eta hezkidetzaren alde eginez.
7. **Berdintasunezko hezkuntza afektibo-sexuala:** errespetuan, aniztasunean eta berdintasunean oinarritutako sexualitateari buruzko prestakuntza eskaintzen dugu, familiekin elkarlanean.
8. **Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta esku-hartzea:** indarkeria matxistaren aurkako prebentzio-ekintzak eta kasuak identifikatu eta kudeatzeko protokolo argiak garatzen ditugu.

Berdintasun Plana hezkuntza-komunitate osoak parte hartzen duen prozesu baten emaitza da: ikasleak, familiak, irakasleak eta zentroko langileak. Bere ezarpena berdintasun talde batek koordinatuko du, proposatutako ekintzak diseinatu, garatu eta ebaluatuz, hauek eskolako bizitzan txertatuta egon daitezen.

Plan honekin, Lanbide Heziketako Zentroa aldaketaren eragile bihurtzen da, gizarte bidezko eta ekitatiboago baten eraikuntzan konprometitua, non errespetua eta berdintasuna guztion balio partekatuak diren.

2. ARAU-ESPARRUA

Easo Politeknikoko Emakumeen* eta Gizonen* Berdintasunerako II. Planaren oinarri den araudia honako hau da:

- GJHen 5.helburua “Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea” da. 4. helburuko 4.7 helmugak, berriz, honakoa proposatzen du: “2030erako, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko behar diren ezagutza teoriko eta praktikoak lor ditzaten bermatzea, besteak beste, honako hauen bidez: garapen iraunkorrerako hezkuntza eta bizimodu iraunkorrak hartzea, giza eskubideak, genero-berdintasuna, bake-kultura eta indarkeriarik eza sustatzea, munduko herritartasuna eta kultura-aniztasuna eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena baloratzea”. Era berean, *Agenda 2030 Basque Country*k, 4. eta 5. GJHeKin lerrokatzean, kalitatezko hezkidetzak bultzatzeko oinarriak ehuntzen ditu.
- Nazio Batuen Erakundeko Incheoneko Adierazpena eta 2030 Hezkuntzarako Ekintza-Esparrua Hezkuntzarako, Zientziarako eta Kulturarako (UNESCO). Hezkuntzarako ekintza-esparru bat ezartzen du 2015-2030 aldirako, eta bat egiten du Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH), bereziki 4. Helburuarekin (hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa barne hartzen duena). Dokumentu honek honakoen garrantzia nabarmentzen du, besteak beste: pertsona guztientzako kalitatezko hezkuntza, inklusioa, ekitatea, genero-berdintasuna eta bizitza osorako ikaskuntza.
- Europan, 2020-2025 Genero Berdintasunerako Estrategiaren bitartez Europar Batasuna bat lortu nahi da non emakumeek, gizonek, neskek eta mutilek -beren dibertsitate osoan- askatasuna izango duten bizitzan aukeratzen duten bidea jarraitzeko, aurrera egiteko aukera berberak izateko eta bizi garen Europako gizartea modu berean osatzeko eta zuzentzeko.
- Estatu mailan, *Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriarako 3/2007 Lege Organikoak* honakoa dio 23. artikuluan: “Hezkuntza-sistemak bere helburuen artean izango du ikasleak heztea, oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatzeko, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzeko.” 24. artikuluko 2. atalean honakoa dio: “Hezkuntza-administrazioek, euren eskumenen esparruan, helburu horri begira, hurrengo jarduerak gauzatuko dituzte: e) Lankidetzan aritzea gainerako hezkuntza-administrazioekin, hezkuntza-komunitateko pertsonen artean hezkidetzaren

printzipioak eta emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorraren printzipioak ezagutaraztera eta hedatzera bideratutako proiektuak eta programak garatzeko”.

- Agindu horri erantzunez, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena), *LOMLOE* izenez ezagutzen denak, emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasuna, genero-indarkeriaren prebentzioa eta aniztasun afektibo-sexualarekiko errespetua ezartzen ditu oinarrizko printzipio gisa. Hezkidetzak curriculumaren lerro transbertsala izan behar duela proposatzen du eta, aldi berean, berrikuntza pedagogikoaren eta metodologikoaren ardatzak txertatzen ditu.
- Abenduaren 21eko 17/2023 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzkoa. Inklusioaren, berdintasunaren, hezkidetzaren eta kulturartekotasunaren alde egiten duen gizarte kohesionatu batean, bizikidetzak positiboa ezartzen du eskola desberdin baten ardatz nagusi gisa. Bestetik, *maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak*, euskal curriculumak beste begirada batetik (kulturartekoa, ekologikoa eta digitalizazioarekin eta hezkidetzarekin lotua) eguneratzeko bidea irekitzen du.
- *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren 3.2.* helburu estrategikoa honakoa da: “Herriartasun-eskubideak erabiltzea bultzatzea, hezkidetzaren bidez”. Horretarako, 3 helburu operatibo ezartzen ditu:
 - Beren kulturen, politikan eta jardunbideetan genero ikuspegia txertatzen duten hezkidetzako ikastetxeen kopurua handitzea.
 - Bizitzan, ikasketetan eta lanean izango duten ibilbidea aukera-aniztasunetik eta genero-baldintzapenik gabe aukeratzen duten ikasleen kopurua handitzea

- Hezkuntza sistema egituraz, pertsonaz eta programaz hornitzea, hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredua modu koordinatuan sustatzeko.
- *EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzaren Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)* dokumentuak VII. Berdintasun Planean ezarritakoari erantzuten dio, eta 8 helburu finkatzen ditu:
 - Hezkuntzaren arloan lantzen den araudiak berdintasuneko eta hezkidetzako mandatuak beteko dituela bermatzen jarraitzea.
 - Emakumeen jakituria eta ekarpen sozial eta historikoa diziplina guztietan txertatzea.
 - Irudien eta hezkuntzaren erabilera inklusiboa egitea, bi sexuen irudi plurala bermatuko duena, genero-rolak eta -estereotipoak alde batera utzita.
 - Orientazio akademiko-profesional ez-sexista bermatzea.
 - Berdintasuna sartzea ezkutuko curriculumean eta ageriko curriculumean.
 - Aniztasunaren molde guztiak txertatzea.
 - Baliabideen eta espazioen erabilera bidezkoa sustatzea.
 - Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta tratu ona sustatzea.

3. PLANA EGITEKO PROZESUA

Emakumeen* eta gizonen* Easo Politeknikoko Berdintasunerako II.Plana
Emakundek eta Ikaslan Gipuzkoak ezarritako jarraibideen arabera garatu da,

genero-berdintasunarekiko konpromisoa oinarri hartuta. Plan honek jarraipena ematen dio 2020-2024ko Easo Politeknikoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I.Planean hasitako lanari.

Dokumentua egiteko, lehen planaren **ebaluazioa** izan da abiapuntu; lortutako helburuak, garatzeko daudenak, egungo testuinguruan zentzurik gabekoak direnak eta detektatutako behar berriak identifikatu dira. Horretarako, ikastetxeko **Berdintasunerako Batzordeak** analisi-prozesu bat zuzendu du, eta prozesu horretan hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartze aktiboa izan da: alorguneak, irakasleak, ikasleak eta beste hainbat eragile.

Parte-hartzean oinarritutako ikuspegi honek ziurtatu du bigarren plan honek zentroaren egungo errealitateak eta erronkak islatzen dituela, hezkuntza-eremuan genero-berdintasunarekiko konpromisoa berresten duelarik.

4. PLANEKO PRINTZIOPIO GIDARIAK

Emakumeen* eta gizonen* Easo Politeknikoko Berdintasunerako II.Plana oinarritzko printzipio batzuetan oinarritzen da, eta printzipio horiek bere ekintza eta neurri guztiak gidatzen dituzte. Printzipio horiek zentroak ingurune hezitzaile berdinazale, inklusibo eta eraldatzailea eraikitzeko duen konpromisoa islatzen dute. Jarraian, plan hau gidatzen duten printzipioak aurkezten dira:

1. Parte-hartzea

Planak hezkuntza-komunitate osoaren inplikazio aktiboa sustatzen du: ikasleak, irakasleak, irakasle ez diren langileak eta kanpoko eragileak, guztiak berdintasunaren helburu komunean parte hartzera animatuz eta lankidetza eta konpromiso kolektiboa sustatuz.

2. Kulturartekotasuna

Aniztasun kulturala aberastasun gisa aitortzen eta baloratzen du, ikaskuntza

aberastuz eta elkarbizitza errespetuzkoa sustatuz. Printzipio honek genero-berdintasuna bultzatzen du, zentroan dauden errealitate kultural desberdinak kontuan hartuz.

3. **Feminismoa**

Plana balio feministan inspiratzen da, genero-desberdintasunak desagerrarazteko eta errespetuan, berdintasunean eta justizia sozialean oinarritutako harremanak sustatzeko, gizarte berdinzale baten zutabe gisa.

4. **Pedagogia feminista**

Hezkuntza-praktiketan genero-estereotipoak zalantzan jartzen dituzten eta emakumeak eta gizonak aldaketa sozialeko eragile gisa ahalduztzen dituzten metodologiak eta ikuspegiak integratzen ditu.

5. **Egingarritasuna**

Planaren ekintza eta neurri guztiak errealistak eta bideragarriak dira, zentroaren baliabide eta gaitasunetara egokituak. Horrek bermatzen du proposatutako helburuak ezar daitezkeela eta denboran zehar mantendu daitezkeela.

Printzipio hauek ez dira soilik planaren diseinu eta exekuzioa gidatzen, baizik eta hezkuntza-ingurunea inklusibo eta berdinzale bihurtzeko tresna ere badira, Easo Politeknikoaren balioekin bat eginez.

5. **BERDINTASUNAREN PLANAREN EGITURA**

Emakumeen* eta gizonen* Easo Politeknikoko Berdintasunerako II.Plana egitura estrategiko argi batekin diseinatu da ekintzak **4 ardatz nagusitan** antolatuz. Ardatz bakoitzak genero-berdintasunaren aldeko helburu espezifiko bati erantzuten dio, hezkuntza eta lanbide heziketaren testuingurura egokituta. Ardatz horiek **8**

programa garatzen dituzte (ardatz bakoitzeko, bi programa) eta programa bakoitzak **2 edo 3 neurri zehatz** biltzen ditu.

5.1. Ardatzak eta helburuak:

1. Gobernu ona

Ardatz honen helburua kudeaketa arduratsua eta genero-ikuspegia printzipio gisa integratzen duen antolaketa bultzatzea da.

- **Programak:**

- **1.1. Berdintasuna sustatzeko antolaketa:** Genero berdintasuna sustatzen duten mekanismo antolatzaileak ezartzea.
- **1.2. Prestakuntza:** Hezkuntza komunitate osoaren genero ikuspegiaren inguruko oinarritzko prestakuntza jarraia.

2. Banakako eta taldekako ahalduntzea

Pertsona guztien konfiantza, parte-hartzea eta protagonismoa indartzea du helburu, lidergo inklusiboa eta garapen pertsonala eta kolektiboa sustatuz.

- **Programak:**

- **2.1. Materialak eta erronkak:** Berdintasuna sustatzen duten ikasmaterial inklusiboak sortu eta erabiltzea.
- **2.2. Hezkuntza sexual integrala:** Hezkuntza sexual inklusibo, berdinzale eta errespetuzkoa sustatzea.

3. Antolaketa sozial jasangarri eta berdinzalea

Zentroko ingurunea eraldatzea du helburu, erantzukidetasuna, aukeren

berdintasuna eta lan-mundua eta komunitatearekiko harreman berdinzaleak bultzatuz.

- **Programak:**

- **3.1. Zentroko espazioak eta baliabideak:** Baliabide eta espazio inklusibo eta irisgarriak egokitzea.
- **3.2. Lan-mundua eta komunitatea:** Enpresekin eta lan-praktikekin berdintasunezko harremanak sustatzea.

4. **Indarkeria matxistatik gabeko bizitzak**

Indarkeria edo diskriminazio mota guztiak prebenitzea eta aurre egitea du helburu, jazarpenik gabeko eta segurtasuneko espazio bat bermatuz.

- **Programak:**

- **4.1. Jazarpenaren kudeaketa:** Jazarpen kasuak prebenitzeko eta kudeatzeko protokoloak ezartzea.
- **4.2. Sentsibilizazioa:** Sexismoaren, LGTBIQ+fobiaren, lodifobiaren eta arraziakeriaren aurkako jarduerak sustatzea.

5.2. Egitura operatiboa:

- **Neurriak programen arabera:** Programa bakoitzak 2 edo 3 neurri konkretu biltzen ditu.
- **Adierazleak eta arduradunak:** Jarraipen-adierazleak, arduradunak eta baliabideak zehaztu dira.
- **Kronograma:** Ekintza guztiak 4 urteko epean garatzeko kronograma batean antolatu dira.

- **Aurrekontua:** Plana modu eraginkor eta jasangarrian ezartzeko beharrezko aurrekontua kalkulatu da.

Ardatz, programa eta neurri bakoitza **Easo Politeknikoaren** ingurune hezitzailea berdinzale, inklusibo eta seguru bihurtzeko diseinatu da.

6. BERDINTASUNAREN PLANA KUDEATZEKO SISTEMA

Emakumeen* eta gizonen* Easo Politeknikoko Berdintasunerako II.Plana kudeatzeko sistema **Berdintasun Batzordeak** zuzentzen du. Organo honek plana gainbegiratu, ezarri eta ebaluatzeko ardura du, komunitate osoaren parte-hartzea bermatuz eta planaren helburuak modu eraginkorrean betetzen direla ziurtatuz.

6.1. Berdintasun batzordearen osaketa

Batzordea talde anitz eta genero-ordezkaritza orekatuan oinarrituta dago, eta honako kideek osatzen dute:

- **Zuzendari exekutiboa:** Jonathan Chinchilla Tamayo
- **Estrategia zuzendaria:** Miguel Ángel Elkoroberezibar
- **Ikasketa burua:** Marta Alcalde Mourente
- **Berrikuntzako zuzendaria:** Alaitz Otaegi Arkaute
- **Berdintasunerako arduraduna:** Mertxe Uribetxeberria

- **Mekanikako mintegiko irakaslea:** Ana Arribas
- **Ordezkaritza sindikala:** June Bollar
- **Orientatzaileak:** Koro Mendarte / Gotzone Erdocia

Beharrezkoa denean, batzordean gai jakin batzuetan parte hartu dezaketen pertsonak gonbidatu ahal izango dira, eta haien ekarpenak aktetan jasoko dira.

6.2. Berdintasun batzordearen eginkizunak

1. Planaren gainbegiratzea

- Berdintasun Plana lau urterako prestatzea, ezartzea eta ebaluatzea.
- Lehentasunak eta beharrezko baliabideak identifikatzea, erantzuleak izendatzea eta kronograma bat definitzea.

2. Jarraipena eta ebaluazioa

- Adierazleen arabera helburuen betetze-maila neurtzea.
- Baliabide eta metodoen egokitasuna berrikustea, arazoak identifikatzea eta konponbideak proposatzea.
- Planaren garapena hobetzeko gomendioak egitea.

3. Koordinazioa eta sentsibilizazioa

- Berdintasunaren eta genero-indarkeriaren aurkako informazio eta prestakuntza ekintzak sustatzea.
- Hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea bultzatzea.

4. Urteko berrikuspena eta planifikazioa

- Egindako ekintzen balantzea egitea, detektatutako behar berriak aztertzea eta hurrengo ikasturterako planifikazioa egitea.

5. Beste eginkizun batzuk:

- Plana erregistratzeko eta argitaratzeko beharrezko tramiteak egitea, dagokion agintaritzaren aurrean.

6.3. Batzordearen funtzionamendua

- **Ohiko bilerak:**

Ikasturtean zehar gutxienez hiru aldiz biltzea.

- Helburu nagusiak: urteko plana prestatzea, ezarpenaren jarraipena egitea eta helburuen balorazioa egitea.

- **Ezohiko bilerak:**

- Batzordeko edozein kidek deitu ahal izango ditu, beharrei buruzko justifikazioarekin.
- Aurrekontu aldaketak, gastu bereziak edo planetik kanpoko neurriak eztabaidatzeko erabiliko dira.

- **Deialdia:**

- Bilerak gutxienez 7 egun baliodun lehenago jakinaraziko dira (ezohiko bilerak: 48 ordu lehenago).
- Zentroko posta elektroniko bidez egingo dira deialdiak.

- **Aktak:**

- Parte hartzaileen izenak, tokia eta ordua, gai-zerrenda, eztabaidatutako puntuak eta hartutako erabakiak jasoko dira.
- Berdintasunerako arduradunak jasoko ditu.

6.4. Alorguneekin elkarrekintza

Sail bakoitzak **berdintasun arduradun bat** izango du, batzordearen eta departamentuko irakasleen eta ikasleen arteko lotura gisa.

- **Eginkizunak:**

- Departamentuko beharrak eta proposamenak helaraztea.
- Ikasleen eta irakasleen kezkak biltzea eta partekatzea.
- Komunikazioa errazten du eta planaren neurriak eraginkortasunez ezartzen direla bermatzen du.

6.5. Baliabideen kudeaketa

- **Berdintasunaren arduraduna:** Zuzendaritzak definitutako ordu liberazioa izango du (gutxienez 3 ordu astero).
- **Aurrekontua eta neurri bereziak:**

- Berdintasun Batzordeak aurrekontu bat ezarriko du, aurrerago xehatua, plana garatzeko. Aurrekontu hori Berdintasuneko arduradunak eta ikastetxeko Administrazioak kudeatuko dute.
- Aurreikusi gabeko gastuei edo planeko ekintzetan aldaketa esanguratsuak egiteari buruzko edozein erabaki zuzendaritzak ebaluatu beharko du.

6.6. Aurrekontua

Emakumeen* eta gizonen* Easo Politeknikoko Berdintasunerako II. Planak 2025eko irailetik 2029ko uztaile bitarteko lau ikasturteetan garatzeko diseinatutako aurrekontua du.

Aurrekontua hasiera batean **modu orokorrean** zehaztuta dago, eta **benetako premien eta jarduera-ildoen arabera** eguneratuko da urtero. Arazo estrategikoen artean banatuko da, beharrei eta garatzen diren ekintzei egokitzuz, eta urteko planifikazioaren barruan kudeatuko da.

→ Aurrekontua kudeatzeko printzipioak

Aurrekontua **malgutasunez** kudeatuko da, eta urte bakoitzean egindako ebaluazioen arabera egokitzapenak egiteko aukera aurreikusten da.

Edozein aparteko aurrekontu-gehirikuntza zuzendaritzak onartu beharko du, eta beharrezkoa izanez gero, **Berdintasun Batzordearen ezohiko bilera** deitu ahal izango da horrelako gaiak aztertzeko.

Ikuspegi horrek planaren **iraunkortasuna, eraginkortasuna eta helburuekin koherentzia** bermatuko ditu.

→ **Baliabide ekonomikoak**

Berdintasun Planaren garapenerako, ikastetxeak **aurrekontu orokor bateratua** ezarriko du, programen eta ekintza-ildoen arabera modu koordinatuan erabiltzeko. Urtero, **2.000 euroko libramentua** aurreikusten da Berdintasunaren arlorako, ikastetxeko aurrekontuaren baitan. Horrez gain, **1.500 euro inguruko laguntza** jasotzea aurreikusten da **irakasleen prestakuntza eta gaitasunen garapenerako (IKPP)** programen bidez.

Bi baliabide horien bitartez, planaren jarduerak modu jasangarrian garatuko dira, lehentasunak urtero eguneratuz eta ekintza guztien jarraipena bermatuz.

Planaren aurrekontu orokorra urteko 3.500 € ingurukoa izango da, eta **Berdintasun Batzordeak eta ikastetxeko zuzendaritzak** kudeatuko dute, ezarritako jarraibide eta mekanismoen arabera, gardentasuna eta koherentzia bermatuz.

7. GARAPENA: Ardatzak, programak eta neurriak

1. GOBERNU ONA

1.1 BERDINTASUNA ZEHARKATZEKO ANTOLAKETA		
Neurriak	Adierazleak	Arduraduna / Laguntzaileak
1.1.1. Berdintasun Batzordea egonkortu eta lan-talde eraginkor eta espezializatua osatu, planaren jarraipena, ezarpena eta egokitzapena bermatzeko.	- Berdintasun arduradunaren izendapena eguneratuta egotea. - Batzordeko kideen egonkortasun-tasa (urtean zehar mantentzen diren kideak). - Urteko bilera kopurua eta aktak.	Berdintasuneko arduraduna Zuzendaritza taldea
1.1.2. Berdintasun Batzordea eta ikasleen arteko komunikazioa bideak eraiki.	- Ikasleen ordezkariekin egindako bilera kopurua.	Berdintasuneko arduraduna Zuzendaritza taldea
1.1.3. Berdintasun Planaren ezarpena eta jarraipena sistematizatzeko dokumentazioaren kudeaketa-esparrua ezarri: II. Planaren inplementazioa, urteko planaren garapena, jarraipen-mekanismoak eta aurrekontuaren kudeaketa.	- II. Berdintasun Plana onartuta eta indarrean egotea. - Urteko ekintza-planaren definizioa eta ezarpena. - Urteko aurrekontua ezarrita eta eguneratuta egotea. - Berdintasuneko arduradunaren ordu-liberazioa formalizatuta egotea.	Berdintasuneko arduraduna Zuzendaritza Dokumentazio arduraduna
1.1.4. Berdintasun Planaren dokumentazioa hezkuntza-komunitate osoari ezagutarazi eta eskuragarri jarri: intranetean eta webgunean eguneratuta argitaratu, eta irakasleen harreran dokumentazioa eta haren kokapena aurkeztu.	- II. Plana intranetean eta web orrian argitaratuta eta eguneratuta egotea. - Informazioa aurkeztu izana langileen hasierako harreran (hitzaldia, aurkezpena edo dokumentu bidez). - Ikasleentzat informazioa eskuragarri egotea (ikasgelan, tutoretzan edo bitarteko digitalen bidez).	Berdintasuneko arduraduna Komunikazio arduraduna Tutoreak

1.2 FORMAKUNTZA		
Neurriak	Adierazleak	Arduraduna / Laguntzaileak
1.2.1. Irakasle eta langileentzako oinarritzko eta espezializatutako formakuntza-programa bat ezarri, genero-ikuspegia, hezkidetza eta berdintasunaren inguruko gaitasunak sendotzeko.	- Urteko formakuntza plana definituta eta onartuta egotea. - Urtean egindako formakuntza-ekintzen kopurua. - Formakuntzetan parte hartu duten langileen kopurua (%). - Parte hartu dutenen asebetetze-maila.	Berdintasuneko arduraduna Prestakuntza arduraduna Zuzendaritza
1.2.2. Ikasleei zuzendutako formakuntza-programa garatu, genero-berdintasunaren, aniztasunaren eta hezkidetza balioen inguruko sentsibilizazioa eta gaitasunak garatzeko.	- Ikasleen formakuntza plana ezarrita egotea. - Urtean zehar burututako jardueren kopurua. - Parte hartu duten ikasleen kopurua eta ziklo arteko banaketa. - Parte hartu dutenen asebetetze-maila.	Berdintasuneko arduraduna Ikasketa buruak Alorretako berdintasuneko arduradunak Tutoreak

2. AHALDUNTZE INDIBIDUALA ETA KOLEKTIBOA

2.1 MATERIALA ETA ERRONKAK		
Neurriak	Adierazleak	Arduraduna / Laguntzaileak
2.1.1. Gaitasunen araberako ebaluazioa lantzeko prozesuan, erronketan genero-ikuspegia integratzea	- Erronken berrikuspen-tasa (urtean aztertutako erronken portzentajea) - Genero-ikuspegia integratu duten erronken kopurua	Berdintasuneko arduraduna Alorretako berdintasuneko arduradunak ETHAZI arduradunak
2.1.2. Material didaktikoa berrikusi eta sortu genero-ikuspegia txertatzeko helburuarekin	- Berrikusi eta eguneratutako material kopurua (%) - Irakasleen parte-hartze kopurua materialen berrikuspen-prozesuan	Berdintasuneko arduraduna Alorretako berdintasuneko arduradunak Irakasle guztiak
2.1.3. Hizkuntza/irudi inklusiboak erabili ikastetxeko komunikazioan	- Hizkuntza ez-sexista eta inklusiboaren gida eguneratuta eta eskuragarri egotea. - Komunikazio-kanpaina edo dokumentuetan hizkuntza/irudi inklusiboen erabilera.	Berdintasuneko arduraduna Komunikazio arduraduna
2.2 SEXU HEZKUNTZA INTEGRALA		
Neurriak	Adierazleak	Arduraduna / Laguntzaileak
2.2.1. Sexu-hezkuntza integrala sustatu ikasleen artean	- Parte hartu duten ikasleen kopurua eta ziklo arteko banaketa. - Parte-hartzaileen asebetetze-mailaren balorazioa.	Berdintasuneko arduraduna Ikasketa buruak
2.2.2. Intranetaren bidez, babesgunean inguruko sexu-eta arreta-zerbitzuen informazioa eskura jartzea.	- Informazioa eskura jarrita eta eguneratua egotea.	Berdintasuneko arduraduna Ikasketa buruak Orientatzaileak

3. GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA

3.1 ESKOLETAKO ESPAZIOAK ETA TRESNAK		
Neurriak	Adierazleak	Arduraduna / Laguntzaileak
3.1.1 Ikastetxeko espazioen azterketa egitea genero-ikuspegitik eta hobekuntza proposamenak egitea	- Azterketa txostena egin den. - Proposamen kopurua - Egindako aldaketa kopurua	Berdintasuneko arduraduna Operatiba zuzendaria Zuzendaritza
3.1.2 Genero-ikuspegia sistematikoki txertatzea espazioen diseinuan eta baliabideen erabileran	- Prozesuetan genero-ikuspegia integratuta.	Berdintasuneko arduraduna Operatiba zuzendaria Zuzendaritza
3.2 LAN MUNDUA ETA KOMUNITATEA		
Neurriak	Adierazleak	Arduraduna / Laguntzaileak
3.2.1 Enpresa/erakundeetan lan-praktiken garapenean antzematen diren genero-desberdintasun, jazarpen edo berdintasunarekin lotutako gorabeherak sistematikoki jaso eta ebaluatu.	- Gorabeherak jasotzeko protokoloa ezarrita egotea. - Urtero jasotako gorabehera kopurua.	Ikastetxeko LP arduraduna Berdintasuneko arduraduna LP tutoreak
3.2.2 Enpresa/erakunde kolaboratzaile guztiek berdintasun-planak eta/edo jazarpenaren aurkako protokoloak dituzten erregistratu.	- Erregistratutako enpresa/erakunde kopurua. - Berdintasun plana duten enpresen portzentajea. - Jazarpenaren aurkako protokoloa dutenen portzentajea.	Ikastetxeko LP arduraduna Berdintasuneko arduraduna LP tutoreak
3.2.3. Enpresa/erakunde kolaboratzaileei zuzendutako sentsibilizazio/formakuntza jarduerak bultzatzea	- Bultzatutako jarduera kopurua	Ikastetxeko LP arduraduna Berdintasuneko arduraduna LP tutoreak

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

4.1 JAZARPENAREN KUDEAKETA		
Neurriak	Adierazleak	Arduraduna / Laguntzaileak
4.1.1 Jazarpen protokoloak eguneratu eta zabaldu ikastetxean.	- Protokoloak eguneraruta eta eskuragarri (BAI/EZ) - Protokoloak ezagutarazi eta zabaltzeko ekintzak egin dira	Berdintasun arduraduna Komunikazio arduraduna Dokumentazio arduraduna
4.1.2 Aholkularitza konfidentzialaren egonkortasuna eta formakuntza	- Aholkularitza konfidentzialaren egonkortasun-tasa - Partaideen formakuntza espezifiko eguneratua	Berdintasun arduraduna Aholkularitza konfidentziala
4.1.3. Indarkeria matxistaren biktima diren ikasleekin jarduteko protokoloa sortu	- Protokoloa sortu da	Berdintasun arduraduna Dokumentazio arduraduna Ikasketa buruak
4.2 SENSIBILIZAZIOA (Sexismoa, LGTBIQ+fobia, arrazakeria, lodifobia...)		
Neurriak	Adierazleak	Arduraduna / Laguntzaileak
4.2.1 Data seinalatuen trataera sistematizatu eta ikusgarria egitea (otsailak 11 – Emakume eta Neska Zientzialarien Eguna; martxoak 8 – Emakumeen Nazioarteko Eguna; maiatzak 17 – LGTBI+ fobiaren aurkako Eguna; ekainak 28 – LGTBI+ Harrotasun Eguna; azaroak 25 – Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurkako Eguna).	- Urtean antolatutako data seinalatuen inguruko jardura kopurua. - Parte-hartze tasa ikasleen eta langileen artean. - Jardueren presentzia komunikazio-kanaletan (webgunea, sare sozialak, intraneta).	Berdintasun arduraduna Komunikazio arduraduna Ikasketa buruak
4.2.2 Sentsibilizazio-kanpainak eta jardura hezitzaileak sustatzea komunitate osoan, sexismoaren, LGTBIQ+fobiaren, lodifobiaren eta arrazakeriaren prebentzioan eta tratu onaren kulturaren sakontzeko.	- Urtero garatutako kanpaina edo jardura kopurua. - Kanpainetan erabilitako material didaktikoaren kopurua.	Berdintasun arduraduna Komunikazio arduraduna Ikasketa buruak

8. KRONOGRAMA

KRONOGRAMA						
Ardatzak	Programak	Neurriak	25/ 26	26/ 27	27/ 28	28/ 29
1. GOBERNU ONA	1.1 BERDINTASU NA ZEHARKATZE KO ANTOLAKETA	1.1.1. Berdintasun Batzordea egonkortu eta lan-talde eraginkor eta espezializatua osatu, planaren jarraipena, ezarpena eta egokitzea bermatzeko.	X	X	X	X
		1.1.2. Berdintasun Batzordea eta ikasleen arteko komunikazioa bideak eraiki.	X	X	X	X
		1.1.3. Berdintasun Planaren ezarpena eta jarraipena sistematizatzeko dokumentazioaren kudeaketa-esparrua ezarri: II. Planaren inplementazioa, urteko planaren garapena, jarraipen-mekanismoak eta aurrekontuaren kudeaketa.	X	X	X	X
		1.1.4. Berdintasun Planaren dokumentazioa hezkuntza-komunitate osoari ezagutarazi eta eskuragarri jarri: intranetean eta webgunean eguneratuta argitaratu, eta irakasleen harreran dokumentazioa eta haren kokapena aurkeztu.	X	X	X	X
	1.2 FORMAKUNTZA	1.2.1. Irakasle eta langileentzako oinarritzako eta espezializatutako formakuntza-programa bat ezarri, genero-ikuspegia, hezkidetzak eta berdintasunaren inguruko gaitasunak sendotzeko.	X	X	X	X
		1.2.2. Ikasleei zuzendutako formakuntza-programa garatu, genero-berdintasunaren, aniztasunaren eta hezkidetzak balioen inguruko sentsibilizazioa eta gaitasunak garatzeko.	X	X	X	X
2. AHALDUNTZE INDIBIDUALA ETA KOLEKTIBOA	2.1 MATERIALA ETA ERRONKAK	2.1.1. Gaitasunen arabera ebaluazioa lantzeko prozesuan, erronketan genero-ikuspegia integratzea			X	X
		2.1.2. Material didaktikoa berrikusi eta sortu genero-ikuspegia txertatzeko helburuarekin			X	X
		2.1.3. Hizkuntza/irudi inklusiboak erabili ikastetxeko komunikazioan	X	X	X	X
	2.2 SEXU HEZKUNTZA INTEGRALA	2.2.1. Sexu-hezkuntza integrala sustatu ikasleen artean	X	X	X	X
		2.2.2. Intranetaren bidez, babesgunean inguruko sexu- eta arreta-zerbitzuen informazioa eskura jartzea.		X	X	X
3. GIZARTE-AN TOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASU NEZKOA ETA JASANGARRIA	3.1 ESKOLETAKO ESPASIOAK ETA TRESNAK	3.1.1. Ikastetxeko espazioen azterketa egitea genero-ikuspegitik eta hobekuntza proposamenak egitea			X	X
		3.1.2. Genero-ikuspegia sistematikoki txertatzea espazioen diseinuan eta baliabideen erabileran			X	X
	3.2 LAN MUNDUA ETA KOMUNITATEA	3.2.1. Enpresa/erakundeetan lan-praktiken garapenean antzematen diren genero-desberdintasun, jazarpen edo berdintasunarekin lotutako gorabeherak sistematikoki jaso eta ebaluatu.		X	X	X
		3.2.2. Enpresa/erakunde kolaboratzaile guztiek berdintasun-planak eta/edo jazarpenaren aurkako protokoloak dituzten erregistratu.		X	X	X
		3.2.3. Enpresa/erakunde kolaboratzaileei zuzendutako sentsibilizazio/formakuntza jarduerak bultzatzea			X	X
4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	4.1 JAZARPENAREN KUDEAKETA	4.1.1. Jazarpen protokoloak eguneratu eta zabaldu ikastetxean.	X	X	X	X
		4.1.2. Aholkularitza konfidentzialaren egonkortasuna eta formakuntza	X	X	X	X
		4.1.3. Indarkeria matxistaren biktimak diren ikasleekin jarduteko protokoloa sortu	X			
	4.2 SENSIBILIZAZIOA (Sexismoa, LGTBIQ+fobia, arrazakeria, lodi-fobia...)	4.2.1. Data seinalatuen trataera sistematizatu eta ikusgarria egitea (otsailak 11 – Emakume eta Neska Zientzialarien Eguna; martxoak 8 – Emakumeen Nazioarteko Eguna; maiatzak 17 – LGTBI+ fobiaren aurkako Eguna; ekainak 28 – LGTBI+ Harrotasun Eguna; azaroak 25 – Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurkako Eguna).	X	X	X	X
		4.2.2. Sentsibilizazio-kanpainak eta jarduerak hezitzaileak sustatzea komunitate osoan, sexismoaren, LGTBIQ+fobiaren, lodi-fobiaren eta arrazakeriaren prebentzioan eta tratu onaren kulturen sakontzeko.	X	X	X	X

9. PLANAREN EBALUAZIOA

Emakumeen* eta gizonen* Easo Politeknikoko Berdintasunerako II.Planak etengabeko eta egituratutako ebaluazio-sistema batekin gauzatuko da, hezkuntza-komunitatearen beharrak eta proposatutako helburuak betetzen direla bermatzeko.

9.1. Ebaluazio jarraia

- **Berdintasuneko arduradunak** eguneratuko ditu urtero berdintasun prozesuaren fitxa eta urteko plana, ikasturte bakoitzerako finkaturiko helburu eta lortutako emaitzekin.
- Ebaluazio jarraia **Berdintasun Batzordearen ohiko bileren** bidez egingo da, eta honako hauek aztertuko ditu:
 - Urteko planean aurreikusitako ekintzen garapena.
 - Planean definitutako adierazleen azterketa.
 - Helburuak betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren balorazioak.

9.2. Tarteko ebaluazioa

- Bigarren ikasturtea amaitzean, **tarteko txosten bat** egingo da, eta bertan jasoko dira:
 - Ordurarte planteatutako helburuen betetze-mailaren balorazioa.
 - Plana ikastetxearen errealitatera nola egokitzen den aztertzea, hezkuntza-testuinguruan izan daitezkeen aldaketak kontuan hartuta.
 - Planaren bigarren erdialderako egokitzapenak edo egokitzapen proposamenak, beharrezkoa izanez gero.

- Txosten hau Berdintasun Batzordeak aztertu eta onartuko du, zentroaren lehentasunekin bat datorrela bermatuz.

9.3. Ebaluazioa finala



- Lau urteko indarraldia amaitzean, **ebaluazioa finala** egingo da, eta bertan jasoko dira:
 - Helburuak betetzearen inguruko azterketa globala.
 - Neurriek hezkuntza-komunitatean izan duten eragina.
 - Ikasitako irakaspenak eta identifikatutako hobekuntza-eremuak.
- Azken ebaluazio honek hurrengo Berdintasun Plana planifikatzeko eta idazteko oinarriak ezarriko ditu, zentroko berdintasun-politiken jarraipena eta bilakaera bermatuz.

Ebaluazio-sistema honekin, Easo Politeknikoak etengabeko hobekuntzarekin duen konpromisoa indartzen du, bere hezkuntza-komunitatearen behar aldakorretara egokituz eta ingurune bidezko eta inklusiboa sustatuz.

